

Comunicado día 26 de junio

Con motivo de la celebración del “Día Internacional de la Naciones Unidas en Apoyo de las Víctimas de la Tortura”, desde Gesto por la Paz queremos trasladar a la sociedad nuestra preocupación ante el fenómeno de la tortura y los malos tratos.

Como en años anteriores, queremos recordar que la tortura sigue siendo una realidad ante la que, como sociedad, no podemos permanecer callados. De nuevo, informes de organismos internacionales de reconocido prestigio, vuelven a reflejar una realidad en la que se echa en falta una respuesta más contundente por parte de las autoridades competentes.

Este año, sin embargo, no queremos detenernos en la denuncia de la persistencia de tortura y en la exigencia de su erradicación. Nos queremos centrar en las propias víctimas de la tortura. Queremos recordar que detrás de todos esos informes y contrainformes, detrás de todas las denuncias y de las manifestaciones en torno a este tema, hay personas que han sufrido -y que en la mayoría de los casos siguen sufriendo sus secuelas- un trato que en ningún caso se puede justificar y que en todos ellos debe de ser reconocido como denigrante, además de exigir su necesaria reparación.

Esta situación a la que tienen que enfrentarse las víctimas de Tortura está muy lejos de ser la que debiera. La ausencia en algunos casos de la diligencia debida por parte de jueces y fiscales ante las denuncias de torturas, la tardanza de los procesos judiciales, las sentencias por torturas o malos tratos en las que no se identifican los responsables, las indemnizaciones impuestas en los casos de condena -en su mayoría irrisorias- o la falta de ayudas institucionales con el objeto de reparar a las víctimas de tortura, son solo algunas de las muchas trabas que tienen que sufrir estas personas.

Las víctimas de torturas, por mucho daño que algunas de ellas hayan podido infligir a la sociedad, son víctimas de una situación que denunciarnos. No podemos dar la espalda a esta realidad por que debemos y queremos defender nuestro Estado de Derecho. Para ello es necesario que trabajemos contra la lacra de la tortura y los malos tratos y que hagamos todo lo posible por reconocer, restituir y reparar a las víctimas de estas prácticas.

Por todo ello queremos recordar torturaik ez, por le estado de derecho.

Ekainaren 26ko agiria

“Torturaren Biktimen Babeserako Nazio Batuen nazioarteko Eguna” ospatzen dela-ta, Bakearen aldeko Koordinakundeak bere kezka helarazi nahi dio gizarteari tortura eta tratu txarrak gertatzen direlako.

Aurreko urteetan bezala, tortura badagoela ekarri nahi dugu gogora eta, errealitate horren aurrean, gizarteak ezin duela isilik geratu. Berriz ere, nazioarteko erakunde entzutetsuen txostenek erakusten digutenaren arabera, ez da erantzun irmorik ikusten agintari eskudunen aldetik.

Aurten, hala ere, torturaren iraunkortasuna salatzen eta honako jarduerak desagertzeko eskaeratik harago jo nahi dugu. Torturaren biktimengan beraiengan jarri nahi dugu atentzioa. Txosten eta ‘kontra-txosten’ guztien atzean, gai honen inguruko salaketa eta adierazpen guztien atzean, inola ere justifika ezin daitekeen eta, kasu guztietan, iraingarritzat aitortu behar den eta ordaina ezinbestekoa duen tratua jasan duten –eta kasu gehienetan horren ondorioak sufritzen dihardute- gizonezko eta emakumezkoak daudela ekarri nahi dugu gogora.

Torturaren biktimek jasan behar duten egoera hau ez da batere egokia, dezente hobe daiteke. Kasu batzuetan, torturen salaketen aurrean, epaile eta fiskalen aldetik behar adineko eginbiderik ez egotea, prozesu judizialak atzeratzea, arduradunak identifikatzen ez dituzten tortura edo tratu txarregatik sententziak, kondena kasuetan ezartzen diren kalte-ordainak -gehienetan hutsaren hurrengoak-, torturaren biktimek kalte-ordaina jadesen aldera, erakundeetatik laguntzarik ez jasotzea... dira pertsona hauek jasan behar dituzten oztopoetako batzuk.

Torturaren biktimak, gizarteari kalte handia eragin badiote ere, salatu egin behar dugun egoeraren biktima dira. Ezin diogu bizkar eman errealitate honi, gure Zuzenbide Estatua defendatu behar dugulako eta defendatu nahi dugulako. Horretarako, gure esku dagoen guztia egin behar dugu torturaren eta tratu txarren gaitzaren aurka borrokatzeko eta horiek jasaten dituzten biktimak aitortzeko eta leheneratzeko eta beraiei kalte-ordaina emateko.

Guzti horregatik, hauxe hots egiten dugu: torturarik ez, zuzenbide estatuaren alde.